

DIRU ITURRIAK

Proiektu bat aurrera eramatean, kasu honetan Trynow aplikazioa, irabazi-iturriak beti izango dira funtsezko helburua. Hau guztia burutzea erabat konplexua izan daiteken arren, aplikazioa aurrera atera ondoren, diru-iturriak iritsiko dira. Beraz, azter dezagun geure proiektuaren irabazi-iturriak zeintzuk eta zer motatakoak izango diren.

Hasierako inbertsioa aurrera eramateko, taldekide bakoitzak 1000€ jarri beharko lituzke aplikazioa aurrera joateko helburuarekin eta kostu guztiak pairatzeko.



Trynowren prezioari helduz, aplikazioak 0,99€ balioko du eta geure bezero potentzialak, hau da, geure merkatuaren segmentazioa zein den aztertuta, estimatzen dugu Espainiako biztanleriaren %3ak deskargatuko duela, hau da, 1.423.067 pertsonak. Horrek, **1.408.836,33€**ko diru sarrera suposatuko luke urtean. Halaber, gure erabiltzaileen %40ak 0,25€ gehigarriak ordainduko dituela uste dugu, hau da, 3€ gehiago urtean. 569.226 pertsona izango liriteke horiek, eta horrek **1.707.678€**ko diru sarrera suposatuko liguke. Beraz, guztira, aplikazioaren deskargetatik eta gehigarrietatik **3.116.514,33€** jasoko genituzke.

Orain aipatutako 0,5€ gehigarri horiek ordaintzen ez dituztenek iragarkiak izango dituzte aplikazioan, modarekin zerikusia duten beste aplikazio batzuen iragarkiak hain zuzen ere, esaterako “21 buttons”, “Vinted”, “Depop”... Iragarki horiek txertatzeagatik hilabetero 600€ irabaziko genituzke, hau da, 200€ aplikazio bakoitzeko, eta urteko **7.200€**

Hori gutxi balitz, geure aplikazioari esker Inditex multinazionalak eta zenbait kirol enpresek salmenta gehiago izango lituzkete, beraz, haien salmenten irabazien **%0,05a** eman beharko liguketela aurreikusi dugu hilabetero. Batez beste, Amancio Ortegaren multinazionalak 46.612.527,75€ irabazten ditu hile bakoitzeko; hortaz, **23.306,26€** dagozkigu Trynow aplikazioko partaideei Inditexetik. Kirol enpresek ere irabazi iturriak handituko lituzkete, eta haiengandik ere salmenten irabazien **%0,05a** jaso beharko genuke. Zenbait datu eta aurreikuspen aztertu eta gero, Nike, Puma eta Adidas enpresek Espainiako Estatuan hilabete batean 52.598.727,7€ irabaziko lituzkete haien produktuetatik; hortaz, guri egokitzen zaigun kantitatea **26.299,36€** da. Zifra guztiak kontuan hartuta, guztira Inditex eta kirol dendetatik **49.605,62€** irabaziko genituzke hilean. Urtean, **595.267,44€**ko kantitatea litzateke.

Behin datu guztiak lortuta, esan dezakegu lehen urtean Trynow aplikazioarekin **3.718.981,77€** irabaziko genituzkeela. Hurrengo urteetan deskargen dirua kontuan hartzen ez denez, **2.310.145,44€** irabaziko genituzke.

Lehenengo urteko irabazi garbiak **3.652.288,22€** koak izango lirateke gure kostuak zeintzuk diren ikusita:

$$3.718.981,77 - 66.693,55 = 3.652.288,22€$$

Hurrengo urteetako irabazi garbiak berriz, **2.243.451,89€** koak izango lirateke gure kostuak zeintzuk diren ikusita:

$$2.310.145,44 - 66.693,55 = 2.243.451,89€$$

Azkenik, irabazi ekonomikoak oso garrantzitsuak direla badakigu, eta aplikazioak aurreikusi bezala funtzionatuz gero, arrakasta handia izan genezake ekonomiaren alorrari dagokionez. Hala ere, guretzat ere funtsezkoa da aplikazioarekin bezeroei egiten diegun mesedea, izan ere, pertsona asko eta asko sarritan arropa erosi gabe gelditzen dira hauek probatzeko aukerarik izan ez dutelako zenbait arrazoi direlako medio, eta Trynow-ri esker askoz ere biztanle gehiagok izango dute arropa erosteko aukera. Horrek asko pozten gaitu, geure gizarteko zenbait pertsoneri mesede handi bat egiten ari garela uste baitugu, eta hori ere oso irabazi handia da Hiru Hirukiontzat.

